



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

ALARMA-EGOERAN, ELIKADURA-ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEARI BURUZKO TXOSTENA

ESPEDIENTEA: LEA/AVC 430-PROM-2020

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. ANALISI JURIDIKOA.....	2
III. ONDORIOAK.....	14

Osoko bilkura

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva, batzordekidea
Enara Venturini Álvarez andrea, batzordekidea
Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Agintaritzak (aurrerantzean, LEA) bilera egin du, goian aipatutakoak elkartuta, 2020ko apirilaren 8an, eta txosten hau eman du.

I. AURREKARIAK

Aurreko egunetan jasotako kontsulta baten bidez, LEA-k poliziaren hainbat jarduketan berri izan du; jarduketa haien bidez, zenbait saltegi nahitaez ixteari ekin zitzaion, ustez egindako ez-betetze honetan oinarrituta:

“Ez betetzea merkataritza-jardueraren eremuko euste-neurriak, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzan duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoak.”“ ”

Izan ere, ***“gozogintza-produktuen eta gozokien merkataritzako”*** lokalak ziren, eta horietan, indar jarduleen iritziz, ***“ez dira saltzen premiazko produktuak”***.



II. ANALISI JURIDIKOA

Arrazoi horretatik ondoriozta daiteke polizia-indarrek interpretatzen dutela Alarmari buruzko EDan ezarritako **euste-neurriak ez direla bete merkataritza-jardueraren eremuan**, soil-soilik **“gozogintza-produktuen eta gozokien merkataritzako lokala izateagatik”**, non **“ez baitira saltzen premiazko produktuak”**.

Alarmari buruzko EDaren 10. artikuluan ezarritako merkataritza-jardueraren eremuko euste-neurriek (1. atala) xedatzen dutenez, etenda geratzen da txikizkako lokalak eta establezimenduak jendeari irekitzea, salbu **janarien, edarien, premiazko produktuen eta ondasunen eta abarren txikizkako saltegiak**.

Jarduera eten behar duten establezimenduen zerrenda gehiago zehazteko asmoz, Alarmari buruzko EDaren eranskinak, xehetasun handiagoz, zehazten du **“jendaurreko irekiera eten behar duten ekipamenduen eta jardueren zerrenda, 10. artikulua ezarritakoaren arabera”**.

Hau da, eranskinak, 10. artikulua berak ezarritakoarekin bat, ez du aipatzen elikadura-denda mota bat ere jarduera eteteko irizpide generikoan sartuta dagoenik.

Geroago, Ministroen Kontseiluak, **martxoaren 19ko bileran, igandean, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretua onartu du, zeinak baimen ordaindu berreskuragarria arautzen baitu oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzat**. Errege-dekretu horretan, sektore ekonomikoen arteko bereizketa aipatzen da zeharka, alarma-egoeran horiek irekitzeari dagokionez; izan ere, zeharka aipatzen da, zeren eta dekretuaren xedea da baimen ordaindu berreskuragarria arautzea funtsezkoak ez diren zerbitzuetako eta sektoreetako langileentzat, zeintzuek baimena nahitaez hartu beharko baitute martxoaren 30etik (astelehena) apirilaren 9ra.

Arau horrek, **eranskinean**, baimen ordaindu berreskuragarria aplikatzen ez zaien langileen zerrenda sektoriala eskaintzen du, hau da **“contrario sensu”**, funtsezkotzat jotzen diren sektoreen zerrenda. Alegia, gai honi dagokionez, interesgarria da **1. puntua**, zeinak aipatzen baitu zer langilek jarraitu behar duten lanean, Alarmari



buruzko Errege Dekretuaren **10.1, 10.4, 14.4, 16, 17 eta 18.** artikuluen babesean eta agintaritzza eskudunak eta agintaritzza eskudun ordezkariak onartutako araudiaren babesean.

Interesgarria da, halaber, **2. puntua, *merkatuaren hornikuntza-katean eta premiazko ondasunen eta zerbitzuen*** ekoizpen-zentroen zerbitzuaren funtzionamenduan parte hartzen duten jardueretako langileei buruzkoa; premiazko ondasun eta zerbitzu horietan, besteak beste, honako hauek sartzen dira: **elikagaiak, edariak**, higiene-produktuak, botikak, osasun-produktuak edo osasuna babesteko beharrezkoa den edozein produktu, baimena ematen delarik horiek banatzeko jatorritik **helmugaraino” (txikizkako salmenta).**

Hau da, Alarmari buruzko EDra bidaliz, horri dagokionez ez dago berrikuntzarik.

Bestalde, eragile juridiko guztiek eta, bereziki, aginte publikoek, edozein arau interpretatu behar izaten dute arau hori egoera errealetan aplikatu behar dutenean, egoera horien aldakortasun ikaragarria kontuan izanda; baina, interpretazio hori ezin da utzi soilik kasu bakoitzean jarduten duen agintaritzaren agentearen edo eragile juridikoaren mende. Interpretazioak men egin behar die kanon hermeneutiko batzuei; haien artean, besteak beste, aipatutako EKren 9.3 artikuluan adierazitako Legezketasun Printzipioa eta Arau Hierarkiaren Printzipioa aipa ditzakegu, zalantzarik gabe.

Arbitrariotasunaren debeku horrek erabat mugatzen du aginte publikoek arauak aplikatzeko duten diskrezionalitate-tartea: ezin da ezarri arauan espresuki jaso gabeko jokabiderik eta murrizketarik, eta araua ere ezin da desberdin aplikatu. Esandako guztiak zorrotz interpretatzeko beharra azpimarratzen du, batez ere, kontzeptu juridiko zehaztugabe gehiegi eskaintzen dituzten araei dagokienez; zehaztasunik ezaren arrazoia arau horiek sortzerakoan egon diren aparteko inguruabarrak izan litezke. Herritarren berme bakarra da jakitea zein jarduera egin daitezkeen eta zeintzuk dauden debekatuta (EKaren 25.1 artikulua); izan ere: **“Ezin dakioke inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezar, baldin eta, une horretan delitu,**



falta edo arau-hauste administratiboak ez badira, aldi horretan indarrean dagoen legeriaren arabera”.

Ikuspegi praktiko batetik, Kode Zibilaren 3.1 artikulua haxe zehazten du: ***“Arauk euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzako aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta”.***

Gauzak horrela, interpretatzen ari garen arauaren hitzez-hitzeko esanahiari erreparatzen badiogu, (Alarmari buruzko EDaren 10. artikulua, kasu honetan), hau agintzen du:

“Txikizkako lokal eta establezimenduak jendeari irekitzea etetea, salbu eta, elikagaiak, edariak eta premiazko produktuak eta ondasunak... saltzeko txikizkako establezimenduak”.

Hots, etetik espresuki salbuesten ditu elikagaien (kontra-salbuespenik ezarri gabe), edarien... eta ***“premiazko beharren produktu eta ondasunen... txikizkako establezimenduak”*** .

“eta” juntagailu kopulatibo horren erabilera, kontzeptu juridiko zehaztu gabe bat jarrita ondoren (***“premiazko produktuak eta ondasunak”***), honela baino ezin daiteke zehaztasunez interpretatu: ***amaiera klausularen zentzuan, “premiazko bestelako produktuak eta ondasunak” gisa.***

Bestela esanda, kontuan hartuz legelariak eskainitako idazketa irekia, aukera hau baino ez dago: Gobernutik (arauaren egilea) beherako agintari guztiek etete orokorra salbuesteko aukera interpretatu ahal izatea hura zabaltzeko, ez murrizteko (salbu Osasuneko ministroak, zeinak, Alarmari buruzko EDaren 10. artikuluan jasotakoaren arabera, “aurreko apartatuetan zerrendatutako neurriak, tokiak, establezimenduak eta jarduerak aldatu, handitu edo murriztu ahalko baititu, osasun publikoko justifikatutako



arrazoiengatik”), 10. artikuluko labur horretan espresuki adierazi gabeko zenbait produktu eta ondasunetarako, zentzuz “premiazko behar” gisa jotzen direnetarako.

Ezin dugu ahaztu Eranskinak 10.1 artikulukoaren osagarri moduan jarduten duela, zeinak behar diren negozioen zerrenda espresua eta itxia jasotzen baitu.

Baldin eta interpretatzen badugu 10.1 artikulukoaren etetearen sartuta daudela elikagai-saltegi jakin batzuk (**beste elikagai batzuen artean —bakarrik edo lehentasunez— gozogintza-produktuak eta gozokiak saltzen dituztenak**), araua zabal interpretatzen ariko ginateke eta herritarren eskubideak murrizten, haren eduki semantikoa errespetatu gabe. Arauak esaten ez duena esaten, eta desberdintasun-efektua arbitrarioki sortzen.

Beste kontu bat da, Alarmari buruzko EDarekin jarraituz (10.2 art.), ***“Irekitzeko baimena duten saltegietan behar-beharrezkoa den denbora baino ez da izango kontsumitzaileek premiazko elikagaiak eta produktuak erosi ahal izateko, eta establezimenduetan bertan kontsumitzeko aukera etenda geratzen da”***.

Nolanahi ere, jendetza pilatzea saihestuko da, eta, kontsumitzaileek eta langileek gutxienez metro eta erdiko segurtasun-distantzia gordetzea kontrolatuko da, kutsatze posibleak saihesteko”.

Illo horretatik, arau bat interpretatzeko beharra onartuta, zeinak bereziki tarte handia eskaintzen duen, haren izaera irekia eta urgentea kontuan hartuta, artikuluek adierazi bezala (Alarmari buruzko EDaren 4.3 art.): ***“Errege-dekretu honen bidez agintari eskudun ordezkari izendatu diren ministroak gaituta daude, nor bere jardun-eremu espezifikokoan, (...) aginduak, ebazpenak, xedapenak eta interpretazio-jarraibideak emateko...”***. Ageriko da, beraz, egon daitezkeen interpretazio guztien artean, “benetako” interpretazioa nagusitu behar dela hasiera batean, hau da, arauaren egileak berak egin duena; kasu honetan, Espainiako Gobernuak egindakoa.

Momentu honetan, adierazi behar da Espainiar legeriaren barruan ez dagoela **“PREMIAZKO PRODUKTUEN -EDO ELIKAGAIEN-”** kontzepturik, ez eta katalogorik ere, hizkera arruntean hala erabili ohi bada ere.



Egia esateko, posible da aurkitzea **“premiatzko ondasuna”** kontzeptuaren arau-erreferentzia bat, partziala eta zeharkakoa bada ere, **Bizkaiko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan**, zeinak Bizkaiko Lurralde Historikora xehetasunez ekartzen dituen **Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen** terminoak.

Horrela, 44.1 artikulua —karitate- edo filantropia-erakundeei zuzendutako ondasunen inportazioei buruzkoak— BEZ zerga ordaintzetik salbuesten ditu **“premiatzko ondasunen”** inportazioak **“dohain lortu direnak behar duten pertsoneri doan banatzeko”**, kontuan hartuz **“premiatzko ondasuntzat”** ulertuko dugula **ezinbestekoak direnak pertsonen berehalako premiak gogobetetzeko; esaterako, elikagaiak, botikak eta oheko arropa eta jantziak”**.

Bestela esanda: elikagaiak, zeharkako aipamen honetan ere, **“premiatzko ondasuntzat”** hartzen dira.

Illo horretatik, BEZaren araudiak ezartzen du, 91.1 artikuluan —bat dator Bizkaiko Foru Araua eta Espainiako Legea—, tasa murriztua aplikatu beharko zaiela (% 10, eta ez % 21 orokorra), beste eragiketa batzuen artean, salmenta hauei **“beren ezaugarriak, aplikazioak, osagaiak, prestaketa eta kontserbazio-egoera direla kausa giza eta animalien elikadurarako erabiltzeko egokiak edo ohikoak diren gaiak edo produktuak, beren jatorria edozein dela ere, betiere Elikadura Kodeak eta hura garatzeko emandako xedapenetan ezarritakoari jarraiki, edari alcoholdunak alde batera utzita”**.

Era berean, % 4ko tasa aplikatuko zaie, beste produktu eta zerbitzu batzuen artean, elikagai hauen salmentei:

- **ogi arrunta, oreak eta irin ogigarriak.**
- **esnea eta gaztak.**
- **arrazak.**
- **frutak, berdurak, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta zerealak.**



Berriro aipatu behar da legegile fiskalak, zerga-mota murriztu horiek zehazten dituenean, ez duela egiten “**premiatzko elikagaien**” zerrenda —are gutxiago zehatza— dela adieraziz, alde batera utzita zerrendatutako guztiak badirela, argi eta garbi.

Eta, elikagaiak, oro har (eta legearen arabera) “**premiatzko ondasunak**” badira ... Zer dira “**elikagaiak**” eta zein da terminoaren legezko irismena?

Espainiako Elikadura Kodearen testua onartzen duen irailaren 21eko 2484/1967 Dekretuak egindako sailkapenean, **1.02.00.** apartatuaren barruan (**Elikagaiak, produktuak eta elikadura-tresnak**), eta, zehazki, **1.02.01.** epigrafean (**Elikagaiak**), definizio hau eskaintzen da:

Elikagaitzat hartuko dira edozein izaeratako gai edo produktu guztiak, solidoak edo likidoak, naturalak edo eraldatutakoak, beren ezaugarri, aplikazio, osagai, prestaketa eta kontserbazio-egoeragatik helburu hauetako baterako erabiltzeko egokiak edo ohikoak direnak:

a) Ohiko giza nutriziorako edo fruitibo gisa.

b) Produktu dietetiko gisa, giza elikadura bereziko kasuetan.

Nutrizio terminoetan produktu edo substantzia bat “fruitibo” izendatzen da elikaduraren parte izanda ere ikuspuntu fisiologikotik funtzio nutritiborik ez duenean eta gozamenagatik kontsumitzen denean.

- Orokorrean, elikagaia da helburu nutrizionalekin edo psikologikoekin izaki bizidunek hartzen duten substantzia; bi helburuok elikagai berean batera gerta daitezke edo ez. Fruitiboak helburu psikologikoekin soilik kontsumitutako elikagaien kategorian sartuko lirateke, nutritiboak ez diren ondorioak sortzeko duten gaitasunagatik —ondorio horiek sentipen atsegingarriekin lotuta daude orokorrean—: hala nola **elikagai edulkoratzaileak** (esaterako, azukre findua eta produktu azukredunak oro har); **elikagai**



estimulatzailerak edo energetikoak (esaterako, kafea, tea, etab.); eta bestelako **ongailuak eta espezieak** (esaterako, ozpina, gatza, piperbeltza edo azafraia).¹

Bestalde, **1507/2000 Errege Dekretuak** katalogo hau arautzen du: **“Erabilera edo kontsumo arrunt, ohiko eta orokorreko produktu eta zerbitzuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren 2.2 eta 20.1 artikuluen ondorioetarako”**

“**Erabilera edo kontsumo arrunt, ohiko eta orokorra**” terminoa kontzeptu juridiko zehaztugabea bada ere, hizkuntza arruntean **“premiazko produktutzat”** interpretatzen denari dagokio zentzuz; kontzeptu hori ezinbestez dago lotuta une bakoitzeko gorabehera ekonomiko, historiko eta sozialekin, eta alderi hori 1507/2000 EDaren zioen azalpenean aitortzen eta aipatzen da: **“kontuan hartuta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra erabiltzen dituen termino generikoak, aurreko testuan inplizituki zegoena argitzen da: eranskinen ondasun, produktu eta zerbitzuen zerrendaketa adierazpen moduko bat da, ez da zehatza”**.

Horiek horrela, aipatutako 1507/2000 EDaren I. eranskinak bi apartatu ditu, eta haien barruan katalogoa zenbakituta dago. “A” apartatuan, **“Elikagaiak eta elikadura-produktuak”** izenekoan, hauek jasotzen dira, besteak beste:

.../...

8. Arrautzak eta arrautza-produktuak.
9. Esnea eta deribatuak.
10. Olioak eta bestelako koipe jangarriak.
11. Zerealak.
14. Irinak eta deribatuak.
16. Frutak eta deribatuak.
17. Gozagarri naturalak eta deribatuak.
18. Saltsak eta gainerako ongailuak eta espeziak.
19. Kafea eta, gainerako elikagai estimulatzailerak eta deribatuak.
20. Animalia- eta landare-kontserbak.
21. Plater prestatuak, produktu dietetikoak eta dietakoak.

¹ Mendoze, E.. (2010). *Bromatologia: Elikagaien osaera eta propietateak*. McGraw-Hill. ISBN 9786071503794



22. Ura eta izotza.

23. Izoziak.

Kontuan hartuta “gozogintza-produktuak eta gozokiak” izeneko produktuak 1507/2000 EDaren I. eranskinak duen katalogoan generikoki aipatutako hainbat produkturen deribatuak edo prestakinak direla, uste dugu Gobernuaren Ordezkaritzak egindako interpretazioa, benetakoa izateaz gainera, zentzuzkoena ere izan daitekeela.

Horregatik, 2009ko ekonomia jardueren sailkapen nazionalaren 47.24 partidan sailkatutako jarduera egiten duen lokala (CNAE-2009), hain zuzen ere, establezimendu espezializatueta ogi eta okindegi- eta gozotegi- eta pasteldegiproduktuen txikizkako merkataritza, zentzuz har daiteke elikagai, edari eta premiazko produktu eta ondasunen txikizkako establezimendutzat, 463/2020 EDaren 10. artikulua ondo onartarako.

Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala da CNAE-2009, Nazio Batuen Estatistika Batzordeak adostutako berraztertze-prozesu baten ondoriozkoa da, NACE onartzeko Erregelamenduan jasotako baldintzen arabera egin dago (2. berrikuspena), eta CNAE-93 ordezten du (1. berrikuspena). Haren helburua, hortaz, estatistikoa da, eta haren derrigortasuna **2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala onartzen duen apirilaren 13ko 475/2007 ERREGE DEKRETUAK** xedatzen du.

Bada, CNAEren sailkapena kontsultatzen badugu, hainbat epigrafe (jarduera-motak) aurkitu ditugu, merkataritza-jardueraren mota horri buruzkoak:

- **CNAE G4711: Txikizkako merkataritza, espezializatu gabeko establezimenduetan: batez ere, elikadura-produktuak, edariak eta tabakoa.**
- **CNAE G4724: Txikizkako merkataritza, espezializatutako establezimenduetan: ogi eta okindegi-, gozogintza- eta pastelgintza-produktuak.**
- **CNAE G4729: Bestelako txikizkako merkataritza, elikagaiena, espezializatutako establezimenduetan.**

CNAE sailkapenaz gain, **Ekonomia Jardueren gaineko Zerga** aplikatzeko, beste bat daukagu, **Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren tarifak eta jarraibideak onesten**



dituen irailaren 28ko 1175/1990 Legegintzako Errege Dekretuak jasotzen duena.

Hau adierazten du haren **eranskinak**:

64. multzoa. Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza, establezimendu iraunkorretan egiten dena.

644. taldea. Txikizkako merkataritza: ogia, pastelak, gozoak eta antzekoak eta esnea eta esnekiak.

Hortaz, "gozogintza eta gozokien txikizkako merkataritza" izeneko kontsiderazio generikoa Elikagaien txikizkako merkataritza multzoaren barruan dago, hau da, Alarmari buruzko EDaren 10. artikulua adierazitako salbuespenaren barruan.

Aipatutako 644. multzoaren barruan, hauek ditugu, besteak beste:

644.1. Epigrafea. Txikizkako merkataritza: ogia, pastelak, gozoak eta antzekoak, eta esnea eta esnekiak.

Edozein motatako ogi eta ogi berezien txikizkako merkataritzarako ahalmena ematen dio; pastalgintza-, konfiteria-, opilgintza- eta gozogintza-produktuak; olatak eta barkilloak, karameluak, gozokiak, turroiak, hostoreak, oreak, kontserba gozoak, galletak, kakaoa eta txokolatea eta, deribatuak eta ordezkioak; esnea, esnekiak eta eztiak; izozkiak, fianbreak, mota guztietako kontserbak; haragi- edo arrain-saltsak, frutak almibarretan, marmeladatan edo oretan; infusioak, kafea eta disolbagarriak; ontziraturako edariak eta markadunak; gaztak, hestebeteak eta ogitartekoak.

644.2 epigrafea. Ogi, ogi berezi eta opil dendak.

Epigrafe honek ahalmena ematen dio ogi, ogi berezien eta opilen txikizkako merkataritzarako, bai eta opilgintza industrialerako eta esne eta gainerako esnekien txikizkako merkataritzarako ere.

644.3 epigrafea. Pastalgintza, opilgintzako eta gozogintzako produktuen txikizkako merkataritza.

Ogi eta ogi berezien txikizkako merkataritzarako ahalmena ematen dio; pastalgintza-, konfiteria-, opilgintza- eta gozogintza-produktuak; olatak eta barkilloak, karameluak,



gozokiak, turroiak, hostoreak, oreak, kontserba gozoak, galletak, kakaoa eta txokolatea eta, deribatuak eta ordezkak; esnea, esnekiak eta eztia; izozkiak eta mota guztietako kontserbak; frutak almibarretan, marmeladatan edo oretan; infusioak, kafea eta disolbagarriak; ontziratutako edariak eta markadunak.

Baita hauek ere: **644.4 epigrafea. Izozkien txikizkako merkataritza; 644.5 epigrafea. Bonboien eta karameluen txikizkako merkataritza; 644.6 epigrafea. Ore frijituen, estalien edota estali gabeen nahiz barrubeteen, patata frijituen, aperitiboen, fruitu lehorren, gozokien, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.**

Kontuan hartu behar da, osagarri gisa, **647.1 EPIGRAFEA: Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 120 metro koadro baino gutxiagoko azalera duenean.**

Bizkaian, Ekonomia Itunari esker, Lurralde Historikoaren botereei dagokie EJZa arautzea eta kudeatzea; izan ere, **Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren tarifak eta izapideak ezartzeko apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arau-emailea** onartu zuen (BAO, maiatzaren 30a), zeinak hauxe xedatzen duen, Estatuaren araudiaren zentzu berean:

64. MULTZOA. TXIKIZKAKO MERKATARITZA: JANGAIK,

EDARIAK ETA TABAKOA, ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRETAN

644. TALDEA. TXIKIZKAKO MERKATARITZA: OGIA, PASTELAK, GOZOAK ETA

ANTZEKOAK, ETA ESNEA ETA ESNEKIAK.

- **644.1. epigrafea. Ogi, pastel, gozo eta antzekoen txikizkako merkataritza, eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.**
- **644.2. epigrafea. Ogi, ogi berezi eta opil dendak.**
- **644.3. epigrafea. Pastelgintza-, opilgintza- eta gozogintza-produktuen merkataritza.**
- **644.4. epigrafea. Izozkien txikizkako merkataritza.**
- **644.5. epigrafea. Bonboien eta karameluen txikizkako merkataritza.**



- **644.6. epigrafea. Ore frijituen, estalien edota estali gabeen nahiz barrubeteen, patata frijituen, aperitiboen, fruitu lehorren, gozokien, txokolatzeko prestakinen eta edari freskagarrien txikizkako merkataritza.**

647. TALDEA. JANGAIEN ETA EDARIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA

ORO HAR

- **647.1. epigrafea. Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, saltzailea duten establezimenduetan.**
- **647.2. epigrafea. Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 120 metro koadro baino gutxiagoko azalera duenean.**

Denek Estatuaren araudian aitortutako ahalmen berdinak dituzte.

Hortaz, nazioarteko, Espainiako eta aldundiko merkataritza-sailkapenaren araudi erregulatzailerik ikusita, ezin da defendatu elikadura-denda bat ez denik gozogintza-produktuen eta gozokien saltegi bat, eta beraz, Alarmari buruzko EDaren 10.1 artikulua salbuespenaren babesa ez duenik.

Bestalde, gogoratu nahi dugu Alarmari buruzko EDaren 5. artikulua — agintari eskudun ordezkarietako lankidetzari buruzkoak— adierazten duela Barne ministroaren mendeko aginduetara geratuko direla Estatuko segurtasun-indar eta -kidegoak eta autonomia-erkidegoetako eta toki-korporazioetako poliziaren kidegoak, errege dekretu honen ondorioetarako, pertsonak, ondasunak eta tokiak babesteko beharrezkoa denean, eta hau gaineratzen du (5.2 art.): *“Agintaritzako agenteek beharrezkotzat iritzitako egiaztapenak egin ahal izango dituzte pertsona, ondasun, ibilgailu, lokal eta establezimenduetan, ziurtatzeko eta, hala badagokio, errege dekretu honen bidez etendako zerbitzuak eta jarduerak egitea saihesteko, espresuki salbuetsi direnak izan ezik. Horretarako, beharrezkoak diren aginduak eta debekuak eman ahal izango dituzte, eta egiten ari diren jarduerak edo zerbitzuak eten ahal izango dituzte”*.



Ilido horretatik, Ertzaintzaren Buruzagitzak **“OSASUN-ALARMA APLIKATZEKO IRIZPIDEAK”** dokumentua egin du, bai Ertzaintzari berari zuzenduta, bai Euskadiko tokiko poliziei. Dokumentu horretan, zein establezimenduk ireki dezaketen eta zeintzuek ez argitzeko gaiari heltzen zaio, eta, espresuki, hau adierazten da:

Premisa bezala, lan-jarduera sektore guztietan onartzen da, eta etenda geratzen da txikizkako lokal eta establezimenduak jendeari irekitzea, 1. Puntuan jasotakoak salbu.

1. Zein merkataritza-lokal ireki daitezke?

Saltoki hauek bakarrik: janari-edari dendak, botikak, osasun-arlokoak, optikak eta ortopedia-produktuenak, higiene-produktuenak, prentsa- eta paper-dendak, gasolindegia, tabako-dendak, ekipamendu teknologikoen eta telekomunikazioenak, konpainia-animaien jakienak; Internet, telefono edo posta bidezko saltegiak, tindategiak, garbitegiak eta albaitaritzaklinikak, ibilgailuen alokairuko enpresak, bankuak, notariotzak, aholkularitzak eta aseguru-etxeak.

III. ONDORIOAK

Lehenengoa. - Ezin da legez kontsideratu **“gozogintza-produktuak eta gozokiak”** generikoki izendatutako produktuak elikagaiak ez direnik.

Bigarrena.- Ez dagoenez legezko definizio zehatzik “premiatzko elikagai edo elikagai-produktu” zer den ulertzeko, ezinbestekoa da **Espainiako Elikadura Kodearen testua onartzen duen irailaren 21eko 2484/1967 Dekretuak eta 1507/2000 EDak araututakora jotzea; azken horrek erabilera edo kontsumo arrunt, ohiko eta orokorreko produktu eta zerbitzuak zerrendatzen ditu, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren 2.2 eta 20.1 artikuluen ondorioetarako.** Implizituki ezartzen dira gozogintza-produktuak eta gozokiak, prestakinak diren aldetik, arauaren I. eranskinean adierazitakoen deribatu gisa.



Hirugarrena. - Gozogintza-produktu eta gozokien saltegiak elikagaien txikizkako establezimenduak dira ondorio guztietarako —bai ondorio estatistikoetarako, bai fiskaletarako—; hortaz, Alarmari buruzko EDaren 10.1 artikuluan adierazitako salbuespenaren barruan daudela kontsideratu behar da, eta, bestelako arrazoirik ezean, ezin da jarduera galarazi.

Laugarrena. - Beste gauza bat da ezaugarri horiek dituen establezimendu bat ixteko arrazoiak zerikusia izatea 10.1 artikulua berak “in fine” xedatzen duenarekin: ***“edozein establezimenduren jarduera etengo da, baldin eta agintari eskudunak uste badu jarduera horrek kutsatzeko arriskua ekar dezakeela, jarduera nola egiten den kontuan hartuta.”*** Horri buruz, LEA/AVC-k ez dauka zer esatekorik.

Bosgarrena. - Alarmari buruzko EDaren 10.1 artikulua 6. apartatuak Osasun ministroa gaitzen du neurriak, tokiak, establezimenduak eta jarduerak aldatu, handitu edo murrizteko, osasun publikoko arrazoi justifikatuak daudenean. Gaur arte, ez da murrizketarik gertatu, kontsulta honen xedeko ezaugarriak dituzten establezimenduek merkataritza-jarduera eten dezaten behartzeko.

Seigarrena. - Orain arte, Eusko Jaurlaritzak ere ez du eman Alarmari buruzko EDaren 10.1 artikulua interpretazioa babesten duen ebazpenik, txosten honen zentzu murriztailean.

Zazpigarrena. - Baldin eta interpretatzen badugu 10.1 artikulua etetean sartuta daudela elikadura-establezimendu jakin batzuk (beste elikagai batzuen artean —bakarrik edo lehentasunez— gozogintza-produktuak eta gozokiak saltzen dituzten saltegiak), araua zabal interpretatzen ariko ginateke eta herritarren eskubideak murrizten, haren eduki semantikoa errespetatu gabe. Arauak esaten ez duena esaten, eta desberdintasun-efektua arbitrarioki sortzen.

Zortzigarrena. - Aipatutako interpretazio murriztailea Espainiako Konstituzioaren 38. artikuluan jasotako enpresa-askatasunaren kontrakoa da, eta merkatuaren itxiera berezi bat eragiten du, premiarik gabe eta eraginkortasunik gabe; izan ere, produktukategoria hori gainerako elikadura-establezimenduetan askatasun osoz saltzen



dutenez, ez du lege-oinarririk, eta justifikaziorik gabeko diskriminazioa sortzen du lehiakideen artean.